

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI ODOL EMATEA

### Bihar, odola emateko zita

Hernanin bihar izango dute aukera odol emateko, 18:00-etan hasi eta 20:30etara, ambulategian odola emateko edota organo donante egiteko. Apirilean 53 odol emate izan ziren, horietako bi berriak eta hiru organo donante ere bai. ■

## ■ HERNANI UDALA

# 'Hernani Tratu Onen Herri' ekimena, abian

Tratu Onen aldeko kanpaina martxan jarri du Udalak gaurtik ekainaren 30era bitarte. Herritar gehiagok partehartzea nahi da eta konpromiso txikiak biltzeko inkesta bat prestatu da.

GAURTIK eta ekainaren 30era bitarte, Hernaniko udaleko Berdintasun sailak eta Berdintasun Kontseiluak, Tratu Onen aldeko kanpaina martxan jarri dute.

Kanpaina hau *Hernani, Tratu Onen Herri* ekimenetik abiatzen da; ekimen bat zeinak herriko pertsona eta eragile sozialen artean ematen diren tratu onen praktikak identifikatu eta balioan jarri nahi dituen; sarea bultzatuz eta Hernani pausoz-pauso Tratu Onen Kulturaren murgilduz.

Hernaniko eragile batzuk jada Tratu Onen aldeko konpromisoak hartzen hasi dira. Horregatik, herritar hauek Tratu Onen alde egiten duten lana aitortzeko eta ikusgarritasuna emateko asmoz, Tratu Onen Mapa sortu zuten

iaz, Biteri Kultur Etxeko sarreran kokatua dagoena.

### Inkesta modu digitalean edo paper formatuan bete daiteke

Orain, herritar eta eragile gehiagok parte-hartzea nahi dute, ziur daudelako Hernaniko egunerokoan tratu onak oso presente daudela.

Horretarako, herritarren ekarpenak eta konpromiso txikiak biltzeko inkesta bat prestatu dute.

Bi modu egongo dira inkesta hau betetzeko: Digitalean [labur.eus/inkestaTOherria](http://labur.eus/inkestaTOherria) edo [labur.eus/encuestaTOherria](http://labur.eus/encuestaTOherria) guneetan eta paper formatuan ondorengo tokietan: Biteri Kultur Etxea, Sandiusterrri, Iturrola Elkarlan Sorgunea, Gaztelekua, AMHER elkarte eta Urumea HerriGunea. ■



Luis Intxauspe, alkatea, eta Garazi Etxarri, Berdintasun zinegotzia.

## ■ HERNANI BITERI

### Bide heziketa, erakusketa

Gaur hasi eta ostiralera bitarte, bide heziketaren inguruan marrazki erakusketa egongo da ikusgai Biteri kultur etxeko erakusketa gelan. Udaltzaingoak antolatzen du. ■

## ■ HERNANI UDALA

### Energia aurrezteko ikastaroa, bihar

Gipuzkoa Argitu programaren barruan, lau saio egingo dituzte Hernanin, energiaren kontsumoa murrizten eta eragin-kortasuna haunditzen laguntzeko. Bihar izango da aurrenekoa arratsaldeko 18:00etan hasita, Goiz Eguzki zentroan. ■

## ■ HERNANI MUS

### Aralar txapelketa gaur hasiko da

Aralar tabernako mus txapelketa gaur hasiko da. Lau partida jokatu dira eta ostegunera arte egongo dira jardunaldiak. Ostegunetan bertan Xalaparta elkarte txapelketaren beste lau partida jokatu dira. ■

## ■ HERNANI ZINEA

### 'Mula' ikusteko azken saioa, gaur

Pelikula bakarra jarri dute Biterin, asteburu honetan, *Mula*, eta gaur da azkenengo aukera bertan ikusteko 16:30etan. ■

## ■ URUMEA EPAB

# Iheslarien 3garren martxara izena eman daiteke

'[basquefreedomtrailsww2@gmail.com](mailto:basquefreedomtrailsww2@gmail.com)' helbidean egin daiteke edo '[www.bpftaww2.com](http://www.bpftaww2.com)' webgunea erabili daiteke. Mendibe-Cizetik Otsagabiara egingo da ekainaren 29 eta 30ean.

IHESLARIEN ibilbideen hiru-garren mendi martxa egingo da Mendibe-Cizetik Otsagabiara ekainaren 29a eta 30ean. Euskal Pirinioak Askatasun Bideak elkarteak mendi martxa omenaldi berri bat antolatu du aurreko bi ekitaldien arrakastaren haritik tiraka.

Ibiltari bezala edo ez, mendi martxa historiko omenaldi honetan parte hartzeko, EPABarekin erregistratu behar

da lehenik. Informazioaren orria eta izenematearen orria eskatu daitezke dagoeneko [basquefreedomtrailsww2@gmail.com](mailto:basquefreedomtrailsww2@gmail.com) helbidean eta EPAB ezagutzeko ondorengo webgunea erabili daiteke: [www.bpftaww2.com](http://www.bpftaww2.com)

Aurtengo askatasun bidea Burdintxuruketa lepotik (Mendibe-Cize, Nafarroa Beherean) Otsagabiara izango da eta hirugarren ibilaldia da.

### Bob Frost hegazkinlari veteranoa zendu zen martxoan

Pasa den martxoaren 14an Bob Frost hegazkinlaria hil zen 95 urterekin eta Bigarren Mundu Gerlan Comete iheserako frantziar-belgikar sareak ihes egiten lagundu zuen, 1942ko irailean naziek haren hegazkina lurrera bota ondotik. Parisa lehenik, handik Donibane Lohizunera, ondotik Madril

eta Gibraltar zeharkatuz, urte bereko urrian Ingalaterrara iristeko.

EPABen esanetan «Frostek beti azpimarratu nahi izan zuen erresistentzia zibilaren laguntza. Zentzu horretan, Euskal Herrian egin izan diren omenaldietan parte hartu izan zuen, euskaldunei esker-rak emateko, bertan hainbat sarek jardun baitzuten nazien aurkako borrokan». ■



Zorionak  
Maddi Uri  
Arratibel!

12 urte

## YABEN ENGLISH SCHOOL

### HERNANI

ikastegia

ADIN GUZTIAK:  
Trinkoa 4 aste Dataki ekainaren 1etik uztailearen 26ra

CAMBRIDGE-KO AZTERKETEN PRESTAKETA TRINKOAK  
FCE\*CAE

\* MATRIKULA: gure bulegoan Cambridge azterketarako matrikulatzeko azken eguna, ekainaren 10a.

YABEN: Anlekale, 60 YABEN Kids: Perkalmege, 13 943 33 17 63

## Robarte una noche

Zinea solasaldiarekin

FERNANDO VERA  
TELMO IRURETA

Maiatzak 8 \_ 19:00 \_ Biteri

Solasaldia elebietan / Zeinu hizkuntza  
Aldi batean itzulpena

Antolatzailea: Koxka Elkarte / Laguntzailea: Hernaniko Udala



**GAUR** Nabarmen igoko dira tenperatura maximoak eta 20 °C ingurukoak izango dira baila osoan. Goizaldeko lehenengo orduak, ordea, hotzak izango dira. **Min.5° / Max.21°**



**BIHAR** Laino gehiago izango da egunsentian, baina erdi mailakoak eta goi-lainoak izango dira eta ez dute euririk utziko. Tenperatura maximoak berdin eta minimoak igo egingo dira. **Min.11° / Max.20°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI MENDI TOUR

# 'The Dawn Wall' mendiko filma ikusi daiteke Orona Ideon

Bilbao Mendi Film Festivalean eskainitako pelikula ikusgarria Orona Fundazioan iritsiko da asteazkenean, 18:00etan, eta sarrera doan da.

MENDIKO pelikularik onenak ikusi daitezke etzi asteazkenean, Orona Ideon Galarretan, Fundazioak duen egoitzan. 18:00etan hasiko da emanaldia eta *The Search for the Wooo* eta *The Dawn Wall* ikusi daitezke. Lehenengoa 11 minutuko laburmetraia eta bigarre-

na luzemetraia.

**Sarrerak 943 33 55 88 telefono zenbakian erreserbatu behar dira**

Bilbao Mendi Film Festivaleko epaimahiaren saria jaso zuen luzemetraiak. Doan da, baina aforo mugatua denez 943 33 55

88 zenbakira deitu behar da sarrerak erreserbatzeko.

8.400 ikuslek gozatu dute jada Mendi Tourraz 2019an, Mendifilmen pelikula eskaintzaren gorakadan marka berriak jarritz. Asteazkenean eta ostegunean Antzoki Zaharrean ere ikusi daitezke. ||


## HERNANI ANTZERKIA



'Pinoccio' ikustera joan zirenak Biteritik irteretakoan 'Lur Ikara' somatu zuten.

### 'Pinoccio' 'Lur Ikara' sortu zuen

Antzerki zale heldu, zein txikiek aukera bikoitza izan zuten larunbata eguerdian bere afizioaz gozatzeko. *Pinoccio* Biteriko areto nagusian eskaini eta jende asko hurbildu zen ikustera. Irteretakoan *Lur Ikara* harrapatu zituen eta Atsegindegira bidean jarri zituen Biteriko plazan bildutakoak. ||



'Pinoccio' ikuskizunean ikusleek ere parte hartzen dute.

## HERNANI SAHARA



Sahararak Atsegindegian bildu ziren beraien banderekin.

### Frente Polisarioaren urteurrena ospatzen

Gipuzkoako saharai komunitateak Frente Polisarioaren urteurrena ospatu zuen Atsegindegian larunbatean. Herrialdeko herri desberdinetatik etorri ziren sahararak bertako jakiez, ohiturez, kantuez eta dantzez ospatzeko. ||

## ASTIGARRAGA PRESOKAK

### Presoen alde kontzentrazioa, 20:00etan

Astelehenero bezala, Astigarragako Presoen Lagunek hitzordua jarri dute JB plazan gaur, 20:00etan. ||

## ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

### Berdintasun Planaren ebaluazioa, bihar

Amaitu berri dute Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana; eta orain, prozesua jarri dute martxan, planaren ebaluazioa egiteko, eta udalerraren egoeraren diagnostikoa berritzeko. Bihar izango du aurreneko saio irekia, udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 19:00etan hasita. ||

## ASTIGARRAGA EAJ-PNV

### Lokala irekita proposamenentzako

Astigarragako EAJ-PNV alderdiak jakinarazi du, Norberto Almandoz plazan daukan lokala irekita egongo dela gaurtik aurrera, maiatzaren 24ra arte; astegunetan 16:30etatik 20:00etara, eta larunbatetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Bertan, herritarren proposamenak jaso, eta datorren legealdira begirako zalantzak argituko dituzte. Emailaz ere jarri daitezke haiekin harremanetan: [pnavastigarraga@gmail.com](mailto:pnavastigarraga@gmail.com). ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Pisua salgai Hernaniko erdigunean;** 2 gela, sukalde, sala eta komuna. Egoera onean.  
Deitu: 628 116 949

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**HERRI URRATS 2019**  
MAIATZAREN 12A

## Etorri gurekin autobusez, Hernanitik Senperera!

Eguna **Maiatzak 12**  
Izena emateko azken eguna **maiatzaren 9a**  
Prezioa Bazkideak **10€**  
Gainerakoak **12€**

Irteteko **Atsegindegian 09:15etan**  
Itzultzeko **Senperen 19:00etan**  
Larramendi 11, behea - **HERNANI**  
943 33 27 99 - [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)